

Xuban Peña eta Olaia Mtnez de Irujo, Huheziko udaberri mus txapelketako jaun eta jabe

2009/05/27

Maiatzaren 26ko gauean jokatu zen txapelketa Eskoriatzako elkarte batean eta 13 pertsonak ostaturako afari eder baten ostean zortzi bikotek hartu zuten parte txapelketan. Hauetatik bikote bat huheziko langileak ziren, beste bikote bat Ikus entzunezko ikasleak eta gainontzekoak hezkuntzako ikasleak.

Zozketa bidez lau bikoteko bi talde osatu ziren eta liga eran jokatu ziren partidak, 2 "usteletara" eta denak denen aurka. Lehenengo taldean Xuban eta Olaiak hiru bikoteren aurka irabazi eta gero finalerako sailkatu ziren. Bigarren taldean berriz askoz ere parekatuagoa egon zen dena baina azkenean Aitor eta Joannes pasa ziren finalera.

Finalean Arrasate eta Zumarragako bikotea irabazten hasi baziren ere, bigarren jokoan ez zuten amaitzen jakin eta azkenean Gipuzkoa eta Nafarroako bikoteak "hordago" batekin irabazi zuten txapelketa. Honenbestez, gaztai bana eta garrantzitsuagoa den "ohorea" ikasleen eskuetan gelditu zen, gutxienez datorren ikasturte-arte. Ea poliki-poliki txapelketa hau goraka doan!

Zorionak Olaia eta Xuban eta gaztaiak on egin diezazkizuela!!

